

HISTORIAKO GRADUA

**EMAKUMEEN BOTO-  
ESKUBIDEA ESPAINIAKO  
II. ERREPUBLIKA GARAIAN**

---

HISTORIA GARAIKIDEKO SAILA

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

EGILEA: MADDI OLAZIREGI GARMENDIA

TUTOREA: MIREN LLONA GONZÁLEZ

2016-2017 ikasturtea

## AURKIBIDEA

1. LABURPENA .....	2
2. SARRERA .....	3
3. AURREKARIAK: emakumeen boto-eskubidea .....	5
4. ESPAINIAKO EMAKUME MUGIMENDUA.....	7
5. EMAKUMEEN BOTOA ERREPUBLIKA GARAIAN.....	10
5.1. Emakumeen boto-eskubidearen erabilera praktikoa eta demokratikoa .....	11
5.2. Clara Campoamorren defentsa .....	14
5.3. Abenduko auzia.....	19
6. ONDORIOAK .....	22
7. BIBLIOGRAFIA .....	25

## 1. LABURPENA

Lan honetan, Espainian emakumeen boto-eskubidearen inguruan, 1931ean, gertaturiko auziak landuko dira iturri idatzien bidez. Horrela izanik, diputatuen artean sorturiko debatea azalduko dugu. Hala ere, horren aurretik, garrantzizkoa da aintzat hartzea lehenagotik Parlamentuaren inguruan emakumeen boto-eskubidearen inguruan emandako auziak. Izan ere, emakumeen sufragioa ez zen lehen aldiz 1931. urtean agertu Parlamentuan. Horrekin batera, garrantzizkoa da 1931ko emakumeen boto-eskubidearen inguruko auzia ulertzeko emakumeen inguruan gauzatzen ziren mugimenduen jabe egitea. Mugimendu horiek, sufragioaren inguruan nolabaiteko eragina izango zuten eta 1920. hamarkadatik aurrera, sufragioaren inguruan eragin handiagoa lortzen joango ziren.

Bestalde, behin 1931. urtean, kokatuz, Espainiako II. Errepublikan, Konstituzioko artikulua onartzeko orduan emakumeen boto-eskubidearen inguruan auzi garrantzizkoak gertatu ziren. Diputatuen artean sorturiko debatean, bi ikuspuntu nabarmen gauzatu zirelarik. Hori dela eta, emakumeen boto-eskubidearen aldeko edota emakumeen sufragioa atzeratzearen aldeko ideiak eta jarrerak nagusitu ziren. Hori izango da lanaren muina, ikuspuntu ezberdinak azalduz sorturiko gatazkaren jabe egitea. Horrela, Clara Campoamorren defentsa ikusiko dugu gertutik, eta berak erabilitako argumentuak ere kaleratuko ditugu. Honek, emakumeen boto-eskubidearen aldeko defentsa irmo bat eraman baitzuen aurrera. Izan ere, Clara Campoamorrek ikuspuntu demokratiko bati eusten zion emakumeen defentsa egiteko orduan, hiritartasunaren oinarriak defendatzen zituen, gizon eta emakumeek eskubide berdintasuna izan behar zutela aldarrikatzen zuen bitartean. Honen aurrean, emakumeen boto-eskubidea atzeratzearen aldeko ahotsak zeuden. Hauek, oinarri demokratikoen aurretik, jarrera praktikoa baten alde egiten zuten, ondorioz, Errepublika bermatzea zen euren lehentasuna, beraien ustez emakumeen botoa arrisku bat izan zitekeelarik Errepublikaren osasunarentzat. Beraz, bi jarrera horiek kontuan izanik, Parlamentuan diputatuen artean emandako gatazka azaleratuko dugu, agertu ziren emendakinak azalduz eta horien aurrean egon ziren jarrerak zein argudiatzeak azalduz.

Hala ere, behin botazioa gauzaturik, emakumeen sufragioa onartzen zuen artikulua auzia ez zen bere horretan gelditu. Emakumeen boto-eskubidea atzeratzearen aldeko ideiak defendatzen zituztenek, 1931ko abenduan auzi berriak

agertu zituzten, botoa atzeratu nahian. Berriz ere, boto-eskubidearen inguruko bi ikuspuntuak azaleratuz.

Azkenik, emakumeen sufragioa onartu izanak izan zituen ondorioak aintzat hartu behar dira. Hots, emakumeen boto-eskubidea onartua izan ondoren, hurrengo hauteskundeetan emakumeengan finkatu ziren ikuspuntu gehienak eta horrek izandako eragina garrantzizkoa da.

## **2. SARRERA**

Lan honen helburua, 1931an Espainian lorturiko emakumeen boto-eskubidearen inguruko ikerlan bat egitea da. Boto-eskubidearen inguruko auziak aztertuko ditugu aldi berean, eta Espainian ematen zen emakumeen inguruko mugimendua ere ikusiko dugu. Horrela izanik, Espainiako mugimendu feminista mugimendu heterogeneo baten antzera sailkatua izan da, hasieratik genero ezberdintasuna nabarmenki adierazgarria zelarik, hori dela eta amatasunarekin eta domestizitatearekin loturiko diskurtsoek indar handia izango zuten eta emakumeen izatea zalantzan jartzen zen bitartean, gizonezkoena ez zen horrelako posizioetan aurkituko. Beraz, garbi dago berdintasunezko logikak alde batera uzten zirela, emakumeen inguruko diskriminazio juridiko, soziala, lanekoa eta politikoa ematen zelarik. Emakumeak arlo publikoan lortzen hasi ziren protagonismoarekin batera, genero-harremanak pixkanaka aldatzen joango ziren. Izan ere, ordura arte emakumea lau arlotara edota paperetara soilik mugatzen zuen: amatasuna, ahizpa/arreba, alaba eta emaztea<sup>1</sup>.

Horri guztiari gainera, XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako Espainiako egoera politikoa gehitu behar diogu, arlo politikoan zeuden ezaugarriek ez baitzuten baldintzatu feminismo liberal bat sortzea eta sufragismoaren aldeko jarrerak hartzea. Ustelkeriaz, hauteskunde fraudez eta kazikismoz beteriko politika ematen zen aurrera Espainian. Hori dela eta, guztizko desoreka gauzatzen zen gizartean, mesfidantza nabaria zelarik<sup>2</sup>.

Guzti horren aurrean, emakumeen aldeko mugimenduak arlo sozialera mugatzen ziren oro har, batez ere hezkuntza eta lan ordainduaren inguruko eskaerak gauzatzen zirelarik. Kontuan izan behar dugu ere, gainontzeko European ematen ziren

---

<sup>1</sup> Concha Fagoaga, *La voz y el voto de las mujeres* (Bartzelona: Icaria, 1985), 18.

<sup>2</sup> Mary Nash, *Mujeres en el mundo: historia, retos y movimientos* (Madril: Alianza Editorial, 2012), 140-141.

mugimenduekin alderatuz, mundu anglosaxoiarekin esaterako, Espainian emandako mugimendua ezberdina zela, zeinak ezaugarri propioak zituen<sup>3</sup>.

XX. mendeak aurrera egin ahala, eskakizunak handitzen joan ziren arlo sozialean, emakumeak pixkanaka geroz eta gehiago agertzen zirelarik arlo publikoan. Lehenengo Mundu Gerrak eragin nabaria izan zuen bertan, nahiz eta Espainiak neutralki jokatu gerran. Gatazkaren ondoren, lehen organizazio feminista ongi antolatuak aurkituko genituzke, hala ere, Espainiako mugimendua ezberdina zela garbi dago, bertan eskatzen ziren eskubide asko dagoeneko beste herrialde batzuetan lorturik baitzeuden. Halaber, Espainian ematen zen mugimendua kontserbadorea edo burgesa zen nagusiki, karitatezko asoziazioak ugariak zirelarik. Hauek, ez zituzten eskubide politikoak aldarrikatuko eta ez ziren ere beren xedeen artean aurkituko<sup>4</sup>. Hau da, emakume burgesek mentalitate tradizional bat zuten, eta horren eraginez, ez zuten sentituko gizonezkoekiko eskubide berdintasuna lortu beharra zutenik<sup>5</sup>.

Historiografiari begira hainbat autore aurkitzen ditugu gaiaren inguruan idatzi dutenak. Garrantzizkoenetako bat Rosa María Capel izango litzateke, honek mugimendu feminista, gutxiengo mugimendu baten moduan sailkatzen du, gizartearen klase zehatz batek bultzatu zuela baieztatuz. Beste autoreetako bat, Geraldine M. Scanlon dugu, zeinak Espainiako sufragismoaren aldeko mugimendua ere gutxiengo baten aldetik emandakotzat sailkatzen duen. Concha Fagoaga-k, ikuspuntu baikorrago baten alde egingo luke, baina garbi uzten du ere gutxiengo mugimendu bat dela eta Mary Nash-ek ere sufragismoak izandako oihartzun baxua salatzen du. Garbi dago hortaz, autoreak bat datozela Espainiako mugimendu feministaren inguruan hitz egiteko orduan, denek mugimendu minoritariotzat sailkatzen dutelarik. Askok gainera, zalantzan jartzen dute ea benetan mugimendu feminista bat eman zen, garbi dute figura indibidual batzuen partetik feminismoaren aldeko aldarriak eman zirela, baina mugimendu moduan sailkatzeko orduan zalantzak agertzen dira<sup>6</sup>.

---

<sup>3</sup> Gloria A. Franco Rubio, "Los orígenes del sufragismo en España", *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V, Historia Contemporánea*, 16 (2004): 456.

<sup>4</sup> Geraldine M. Scanlon, *La polémica feminista en la España contemporánea (1868-1974)* (Madril: Akal, 1986), 196-200.

<sup>5</sup> Paloma Díaz Fernández, "La dictadura de Primo de Rivera. Una oportunidad para la mujer", *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V, Historia Contemporánea*, 17 (2005): 176.

<sup>6</sup> Mary Nash, "Los Feminismos históricos: revisiones y debates", en *Feminismos: contribuciones desde la historia*, ed. Ángela Cenarro eta Régine Illion, 31-32 (Zaragoza: Prensa de Universidad de Zaragoza, 2014).

Bestalde, feminismo historikoa bestelako ikuspuntu batetik tratatzeko eta ulertzeko beharra dagoela ere aldarrikatzen dute autore batzuk, tartean Nashek berak, ikuspuntu zabal eta plural batetik ikusi beharreko mugimendua izan beharko lukeela leporatzen duelarik. Hau da, mugimendua ez litzatekeela soilik arlo politikoaren inguruan eginiko borrokan finkatu beharko. Izan ere, hortik kanpora osaturiko talde edota mugimendu asko ez ziren feminismotzat hartzen eta Nashek hori birplanteatzeko beharra dagoela gaineratzen du<sup>7</sup>.

Eginiko lanean finkatuz, hasteko aurrekarietan murgilduko gara eta Espainian, II. Errepublika aurretik emandako emakumeen sufragioaren inguruko hainbat auzi agertuko ditugu, aldi berean, emandako emakumeen inguruko mugimenduak ere ikusiko ditugularik. Jarraian eta lanaren muinean barneratuz, 1931ko Errepublikaren ezarpenarekin batera emakumeei esleituriko boto-eskubidearen inguruko debatea aztertuko dugu, ikuspuntu ezberdinak azaleratuz. Lanari amaiera emanez, ondorio batzuekin amaituko dugu.

### **3. AURREKARIAK: emakumeen boto-eskubidea**

Espainian emakumeen sufragismoaren inguruan lehen aldiz, 1877an bozkatu zen, Hauteskunde Legea eztabaidatu zenean. Urte horretan, Alejandro Pidal y Mon eta beste sei diputatuk emakumeen boto-eskubidea aldarrikatu zuten, baina muga garbi batzuekin; botoa ematen zuten emakumeak adinez nagusiak, famili buruak, alargunak edota gurasoen agintetik kanpo zeudenak izan behar ziren. Eskakizun hau hala ere, bertan behera gelditu zen<sup>8</sup>. Kontuan izan behar dugu honen bidez, emakumezkoen alderdi txiki bat soilik hartzen zela kontuan, gehiengoa alde batera uzten zelarik. Bestalde, emakumeek ez zuten inongo esperientziarik botoaren inguruan eta hori arrazoi nagusietako bat izango litzateke emakumeei botoa ez emateko<sup>9</sup>. Askoren ustez gainera, boto-eskubideak familiako oreka hautsiko luke, izan ere, posiblea zen gertatzea arlo politikoan iritzi berdintasuna ez izatea gizonen eta emakumeen artean, ondorioz, famili barneko gatazka sortuko litzateke. Horrez gain, beste hainbat argudio ere plazaratzen ziren; emakumeek soldaduska ez zutela egiten edota askotan gizonaren alderdi berari botoa emango ziotela argudiatzen zen, eta beraz, gizonari bi boto ematearekin nahikoa

---

<sup>7</sup> Mary Nash, "Experiencia y aprendizaje: la formación histórica de los feminismos en España", *Historia social*, 20 (1994): 157.

<sup>8</sup> Gloria A. Franco Rubio, 2004, *Op. cit.*, 480.

<sup>9</sup> Concha Fagoaga, *Op. cit.*, 85-86.

zela pentsatzen zen. Emakumeek jarrera urduria eta kaskarina zutela ere argudiatu zen, hori dela eta, desoreka sartuko luke politikan<sup>10</sup>.

Gerora berriz ere gaia 1907an agertu zen, Alfontso XIII.aren erregealdian, Maura presidente zelarik. Urte horretako uztailean, bi zuzenketa proposatu ziren; alde batetik, emakumeen sufragioa aldarrikatu zen udal hauteskundeetarako, 23 urtetik gorakoentzat. Bestetik, hauteskunde orotarako boto-eskubidea eskatzen zen emakumeentzat, baina muga zehatz batzuekin; alargunak izan behar ziren eta urteroko lurralde kuota ehun pezeta baino gutxiagokoa ezin zitekeen izan. Bi emendakin hauek ere, ukatuak izan ziren<sup>11</sup>.

Urte bete geroago, 1908an, berriz ere azaleratu zen gaia, oraingoan adinez nagusi, emantzipatuak eta familien buru ziren emakumeei udal hauteskundeetan boto-eskubidea ematearen aldeko zuzenketa aurkeztu zuen Pi y Arsuaga diputatuak, baina berriz ere bertan behera gelditu zen. Kontserbatzaileen iritziz zuzenketa iraultzailea zen eta ezkerren ustez atzerakoia, honekin batera kontuan hartu behar da gizartean oraindik oso erroturik zegoela genero ezberdintasuna eta beraz, emakumeek jokatu behar zuten papera. Hala ere, horrelako zuzenketak aurkeztearen zergatiak adierazgarriak izan daitezke; alde batetik, Europa nordikoko herrialdeen eragina aurkitu dezakegu, bertan emakumeen sufragioa garai hartan lortu baitzen. Bestetik, Ingalaterrako mugimenduaren eragina ere jasoko zela suposatzen da, bertan modu irmo batean antolatua baitzegoen emakumeen aldeko mugimendua<sup>12</sup>.

Urte batzuk geroago gaia berriz ere plazaratu zen, 1919an Manuel de Burgos y Mazo kontserbadoreak emendakin bat aurkeztu zuenean. Bertan espainiar orori boto-eskubidea bermatzen zitzaion, 25 urtetik gorakoei. Hala ere, bere ezaugarriak zituen emendakinak, izan ere, emakumeek ezin izango lukete hautagai izan eta bi egun ezartzen ziren botoa emateko, bata gizonentzat eta bestea emakumeentzat. Proiektua ez zen bozkatzera ere iritsi, gobernuaren erorketaren ondorioz. Dena den, gertakari honek gizarteko ahotsak harrotu zituen eta horrela izanik, 1921ean Cruzada de Mujeres Españolas-ek, zeinak Carmen de Burgos buru zuen, emakume eta gizonen arteko

---

<sup>10</sup> Geraldine M. Scanlon, M., *Op. cit.*, 149.

<sup>11</sup> Rosa M. Capel Martínez, *El Sufragio Femenino en la Segunda República Española* (Madril: Horas y horas, 1992), 69.

<sup>12</sup> *Ibidem*, 70-71.

eskubide berdintasuna eskatu zuen arlo zibil zein politikoan, beste hainbat eskakizunekin batera<sup>13</sup>.

Azkenik, 1924ko martxoaren 8an Miguel Primo de Rivera diktadoreak emakumeei boto administratiboa esleitu zien Estatutu Munizipalaren bidez, nahiz eta presio sozialik ez egon gaiaren inguruan. Hala ere, emakumeen artean bereizketak ezartzen ziren; emakume ezkongabe edota alargunei eta adinez nagusiei boto politikoa esleitu zien. Ezkondutako emakumeek ere euren botoa eman zezaketen, baina ezaugarri batzuk bete behar zituzten; ez ziren guraso-agintearen menpe egon behar edo senarrak arazoak zituenean eman zezaketen botoa<sup>14</sup>. Aldi berean, 25 urtetik gorako emakumeak ere hautagai izan zitezkeen. Primo de Riverak baimen horiek ematearen inguruan hainbat arrazoi kaleratu izan dira. Alde batetik, internazionalki ematen ari ziren mugimendu sufragisten eraginaren ondorioz gauzatua izan zitekeen, Lehen Mundu Gerraren ondoren hainbat herrialdeetan emakumeek boto-eskubidea jaso baitzuen<sup>15</sup>. Bestetik, babes soziala bereganatzeko egin zela pentsatu izan da<sup>16</sup>.

Hala ere, nahiz eta emakumeek boto-eskubidea lortu, hauteskundeak ez ziren ospatuak izan. Halaber, Primo de Riverak Udal Estatutua onartu ondoren, pixkana emakumeak agertzen joango ziren udaletxeetan. Oro har, hiri handietan izan ziren aukeratuak posturen bat betetzeko, zinegotzi moduan; Madril, Bartzelona edota Donostia bezala. Haatik, herri txikietan ere emakumeen ordezkariak agertzen dira. Abiapuntu horretatik Primo de Riverak Asanblada Nazionala osatzeko hainbat emakume bildu zituen, guztira 385 kide ziren eta horietatik 13 emakumeak ziren<sup>17</sup>.

#### **4. ESPAINIAKO EMAKUME MUGIMENDUA**

Eman ziren mugimendu feministei begira, oro har beren eskakizunak arlo sozialera mugatzen ziren esan bezala, hezkuntzaren aldeko eskakizunak nagusi zirelarik. Hori dela eta, emakumeen inguruan sorturiko asoziazio zein mugimendu gehienak

---

<sup>13</sup> Gloria A. Franco Rubio, 2004, *Op. cit.*, 480-481; Paloma Díaz Fernández, *Op. cit.*, 179.

<sup>14</sup> Rosa M. Capel Martínez, *Op. cit.*, 74-75.

<sup>15</sup> 1924rako emakumeen sufragioa onarturik zuten herrialdeak: Australia, Austria, Belgika, Kanada, Txekoslovakia, Danimarka, Estatu Batuak, Finlandia, Hungaria, Irlanda, Islandia, Luxenburgo, Mongolia, Norvegia, Zeelanda Berria, Herbehereak, Polonia, Britainia Handia, Alemania, Bielorrusia, Ukraina, Suedia eta Errusia.

<sup>16</sup> Gloria A. Franco Rubio, 2004, *Op. cit.*, 481.

<sup>17</sup> Gloria A. Franco Rubio, "La contribución de la mujer española a la política contemporánea: de la Restauración a la Guerra Civil (1876-1939)", en *Mujer y sociedad en España 1700-1975*, koord. Rosa M. Capel, 247-249 (Madril: Instituto de la mujer, 1986).



hezkuntza zein emakumeen lana hobetzeari begira egongo ziren<sup>18</sup>. Bestalde, 1920. hamarkadatik aurrera, aldaketa emango litzateke, asoziazio gehiago agertuko baitziren, eta horietariko asko sufragismoari begira aurkituko genituzke. XIX. mendera joz, horrelako eskakizunen deia egiten zuten pertsonai garrantzizkoenetakoak Concepción Arenal eta Emilia Pardo Bazán izan ziren. Horrela izanik, emakumeak goi mailako hezkuntzarako sarrera lortzen joan ziren, baina beste arlotan gertatzen den moduan, gainontzeko herrialde garatuekin alderatuz, prozesu geldoa izan zen<sup>19</sup>.

XX. mendean zehar aurkitzen dugun mugimenduetako bat katolizismoaren ingurukoa izango litzateke, zeinak emakumeen instrukzioari ematen zioten garrantzia. Horren inguruan paper garrantzizkoa jokatu zuen María de Echarri-k, langile mundua eta katolizismoa lotuz. Aldi berean, feminismo katalanak ere indarra izango zuen mende hasieran, nazionalismoaren testuinguru batean ematen zelarik. Bertan, Dolors Monserdà topatzen dugu, kristautasunaren eta nazionalismoaren inguruko feminismoa bultzatu zuelarik<sup>20</sup>. Esan moduan, Lehen Mundu Gerraren baitan, feminismoaren inguruko debatea jeneralizatu egin zen, 1918an Espainia mailako asoziazio garrantzizkoena sortu zelarik: Asociación Nacional de Mujeres Españolas (ANME), María Espinosa-k sortua. Hasiera batean arlo sozialean eta amatasunean zentratu zen eta gerora, Benita Asas Manterola-ren zuzendaritzapean, sufragismoa hartu zuen borroka helburu. Asoziazioak emakumeen egoera hobetzea zuen helburu, emakumeek sindikatuetan parte hartzea bultzatzen zuen, ofizio ezberdinetarako sarrera izatea, prostituzio legalizatuaren suspentsioa, Kodigo Zibilaren erreforma, aitatasuna ikertzea edota genero biolentziaren kontrako jarrera zuen besteak beste. Hala ere, genero ezberdintasun nabari batetik abiatzen zen eta bere baitan, emakume ezberdinak topatuko ditugu, baina oro har burgesia baten parte zirenak izango ziren<sup>21</sup>. Halaber, gai asko ez ziren ANMEren programaren barnean sartzen, dibortzioa, amodio askea, abortua edota jaiotza-tasaren kontrol eza bezala<sup>22</sup>. Asoziazio horrez gain, bestelako batzuk ere topatuko ditugu; La Unión de Mujeres Españolas, Asociación Femenina de Educación Cívica, Juventud Universitaria Feminista, Cruzada de Mujeres Españolas, Liga Internacional de Mujeres Ibéricas e Hispanoamericanas, Asociación Católica de la Mujer, Liga Internacional de

---

<sup>18</sup> Gloria A. Franco Rubio, 2004, *Op. cit.*, 469.

<sup>19</sup> Mary Nash eta Susanna Tavera, *Experiencias desiguales: conflictos sociales y respuestas colectivas (siglo XIX)* (Madril: Editorial Síntesis, 1995), 69-70.

<sup>20</sup> Mary Nash, 2012, *Op. cit.*, 142.

<sup>21</sup> Ángela Figueruelo Burrieza, "Setenta y cinco años de sufragio femenino en España perspectiva constitucional", *Criterio Jurídico*, 7 (2007): 150; Concha Fagoaga, *Op. cit.*, 131.

<sup>22</sup> Geraldine M. Scanlon, *Op. cit.*, 207.

Mujeres Españolas, La Mujer del Porvenir (Bartzelonan), La Progresiva Femenina (Bartzelonan), Acción Femenina (Bartzelonan), Liga Española para el Progreso de la Mujer (Valentzian), Sociedad Concepción Arenal (Valentzian)<sup>23</sup>.

Urte bete geroago, 1919an Sociedad Progresiva de Mujeres, Liga Española para el Progreso de la Mujer, ANME, Valentziako Sociedad Concepción Arenal eta Bartzelonako La Mujer del Porvenirrek Consejo Supremo Feminista ezarri zuten, helburu garbi batekin: mugimendu feminista koordinatzea eta emakumeen sufragioa lortzea<sup>24</sup>.

Espazio femeninoak sortzen ere hasi ziren, debateetarako foroak bezala, bertan emakumeen emantzipazioaren inguruan edota beste gaien inguruan hitz egiten zelarik. Adibide garbienetako bat Madrileko Lyceum Club (1926-1936) da, María de Maeztu lehen zuzendaria izan zelarik, emantzipazioaren inguruko zentro kulturala zen, zeinetan debate politiko, filosofiko edota literaturaren ingurukoak ospatzen ziren. Sortzeko abiapuntu moduan, Pariseko eta Londreseko zentroetako inspirazioa hartu zen<sup>25</sup>. Bestalde, emakumeen sufragioaren inguruan ere debatitu zen bertan eta emakume kultuak parte hartzen zuten, elitearen parte zirenak. Espazio laiko baten moduan ezartzen zen, edozein tendentzia politikotik kanpo gelditzen zela aldarrikatzen zuelarik<sup>26</sup>. Ateneo de Madrid ere zentro garrantzizkoa izango zen 1913az geroztik, bertan feminismoaren inguruko hitzaldiak ematen ziren, emakume gonbidatu ezberdinak bertaratzen zirelarik; Benita Asas Manterola, Julia S. de Trellero edota María Lejárraga bezala<sup>27</sup>.

Asoziazio ezberdinez gain, egunkari eta aldizkariak ere paper garrantzizkoa jokatu zuten emakumeen eskubideak eta emantzipazioa aldarrikatzeko orduan; Feminal, Redención Femenina (Sufragismoaren aldeko ahots garrantzizkoenetako bat), La Voz de la Mujer, Unión Feminista, Mundo Femenino, El Pensamiento Femenino, Estudios edo Humanidad Libre izango lirateke adierazgarrienak<sup>28</sup>.

Dena den, aipagarriak dira ere sufragismoaren inguruko figura indibidualak, Clara Campoamor edota Carmen de Burgos Seguí bezala. Azken hau, hasiera batean,

---

<sup>23</sup> Gloria A. Franco Rubio, 2004, *Op. cit.*, 139-152.

<sup>24</sup> Mary Nash, 2012, *Op. cit.*, 147.

<sup>25</sup> Concha Fagoaga, *Op. cit.*, 182-183.

<sup>26</sup> Mary Nash, 2012, *Op. cit.*, 148-149.

<sup>27</sup> Gloria A. Franco Rubio, 2004, *Op. cit.*, 473-474.

<sup>28</sup> *Ibidem*, 471-472; Geraldine M. Scanlon, *Op. cit.*, 203.

mesfidantza erakutsi zuen emakumeen botoarekiko, bere erabilgarritasuna zalantzan jarri zuelarik, emakume ezjakinak horrelako eskubide baten aurrean jartzea arriskutsua zela pentsatzen baitzuen. Hala ere, bera izan zen populazioari galdetegi bat luzatu ziona, bertan sufragismoaren alde zeuden edo ez esatea zelarik helburua. Galdetegi honek, gaiaren inguruan hitz egitea ahalbidetu zuen<sup>29</sup>.

## 5. EMAKUMEEN BOTOA ERREPUBLIKA GARAIAN

Errepublika garaian, emakumeen boto-eskubidearen inguruan hitz egiterakoan, kontuan izan behar dugu testuingurua. Horrela izanik, 1930ko urtarrilaren 28an Miguel Primo de Riverak dimisioa aurkeztu zuen Alfontso XIII. errege zenaren aurrean, dimisioarekin batera, monarkiaren bizirautea zalantzan jartzen zelarik. Izan ere, dimisioa aurkeztu ondoren, monarkiak bere babes nagusia galdu zuen. Hurrengo urtean, 1931ko apirilaren 12an Udal Hauteskundeak ospatu ziren, eta hori iritsi bitartean monarkiaren kontrako ahotsak geroz eta ugariagoak egin ziren, oposizioa antolatzen joan zelarik, 1930eko abuztuaren 17an ospaturiko Donostiako Itunean ikusi daitekeen moduan. Hori guztia dela eta, Errepublika baten aldeko oihartzuna geroz eta agerikoagoa zen, aldarrikatu zen arte. Aldarrikapen hori 1930eko abenduaren 15ean iritsi zen, zeina porrotean amaitu zen. Ondorioz, 1931ean ospaturiko hauteskundeetan bi jarrera nabarmendu ziren; Errepublikaren aldekoa eta monarkiaren aldekoa. Hauteskundeak ospatu eta bi egun geroago, apirilaren 14ean Espainiako Bigarren Errepublika aldarrikatu zen<sup>30</sup>.

Gobernu berria osatu ahal izateko, Asanblada Konstituziogiletarako hauteskundeak egin ziren, 23 urtetik gorako gizonezkoek bozkatu zezaketen eta emakumeek sufragio pasiboa eskuratu zuten, beraz elizgizonen antzera, hautagai izan zitezkeen<sup>31</sup>. Garbi dago, emakumeei hasieratik ez zitzaiela sufragio aktiboa bermatu eta hortaz, gerora debatitu beharreko auzitzat hartu zuten.

Diputatuen Ganbera osatzeko hauteskundeak gauzatu ostean, 470 ziren diputatuak, horietatik hiru emakumeak ziren: Clara Campoamor (Partido Republicano Radical), Victoria Kent (Partido Republicano Radical Socialista) eta Margarita Nelken

---

<sup>29</sup> Concha Fagoaga, *Op. cit.*, 115-116.

<sup>30</sup> Rosa M. Capel, *Op. cit.*, 84-86.

<sup>31</sup> Laura Sánchez Blanco, "Una historia diferente, 80 años después de que las mujeres votasen por primera vez. Mujeres conservadoras, católicas y radicales", *Aportes*, 82 (2013): 113.

(Alderdi Sozialista). Azken hau, Ganberara beranduago txertatu zelarik<sup>32</sup>. Hasieratik aurkitzen ditugun bi diputatu emakume horietatik abiatuz, erregimen berrian emakumeek presentzi gehiago izan zutela garbi dago. Erregimen berri bat aurkitzearekin batera, Errepublikarekin, Espainiak urteetan zehar zituen ezaugarriekin amaitzea zen helburua eta hortaz, herrialdea modernizazio prozesu berri batean barneratuko litzateke. Prozesu horretan kanpo influentziei atentzioa ezartzen badiegu, aipatu moduan herrialde askok emakumeak arlo politikoan barneraturik zituzten, arlo publikoan presentzia geroz eta nabariagoa zuelarik. Hori guztia kontuan hartuz, Espainiak modernizazio horretan hainbat erreformaz gain, beharrezkoa zuen emakumeak arlo publiko zein politikoan barneratzea.

Bestalde, Gorteak behin osaturik, Konstituzio Proiektua idazteko Komisia osatu beharra zegoen, bertako presidente Luis Jiménez de Asúa ezarri zen eta bertako kideetako bat Clara Campoamor zen. Azken honek, momentu oro emakumeen eskubideak defendatuko zituen. Komisia Gorteen aurrean Konstituzioa presentatzerako orduan, emakumeen sufragioaren inguruko artikulua 34.lean biltzen zen, zeinak horrela zioen; “los ciudadanos de uno y otro sexo, mayores de 23 años tendrán los mismos derechos electorales, conforme determinen las leyes”<sup>33</sup>.

### **5.1. Emakumeen boto-eskubidearen erabilera praktikoa eta demokratikoa**

Diputatuen Ganberan hasieratik Konstituzioaren Proiektuko 34. artikulua debatzeko orduan, emakumeen boto-eskubidearen aurrean, bi jarrera nagusitu ziren. Kontuan hartu beharra dago ordea, emakumeen botoa eztabaidagai izateaz gain, botoa emateko ezarritako adina ere eztabaidatzeko puntu bat izan zela<sup>34</sup>.

Alde batetik, Acción Republicana, Partido Republicano Radical eta Partido Republicano Radical Socialista alderdi politikoek osatzen zuten ikuspuntua aurkitzen dugu. Hiru alderdiak emakumezkoen boto-eskubidea atzeratzearen alde agertzen ziren, hots, beraien ustez emakumeak oraindik ez lirateke prest egongo horrelako jarduera gauzatzeko. Beraien xede nagusia Errepublikaren bizirautea bermatzea zen, ondorioz, ikuspuntu praktiko edota politiko batetik hartzen zuten emakumezkoen sufragioa. Izan

---

<sup>32</sup> Aurora Morcillo Gómez, “Feminismo y lucha política durante la II República y la Guerra Civil”, en *El feminismo en España: dos siglos de historia*, ed. Pilar Folguera, 64-65 (Madrid: Editorial Pablo Iglesias, 1988).

<sup>33</sup> Rosa M. Capel, *Op. cit.*, 91-92; Ángela Figueruelo Burrieza, *Op. cit.*, 151.

<sup>34</sup> Concha Fagoaga eta Paloma Saavedra, *Clara Campoamor: la sufragista española* (Madrid: Instituto de la Mujer, 1986), 90.

ere, beraien aburuz, emakumeak mentalitate tradizional baten jabe ziren, zeina Elizaren influentziaren ondorioz barneraturik izango luketen. Emakumeek beren boto-eskubidea askatasun osoz erabiltzeko, influentzia horretatik atera beharra zuten alderdi hauen ustez, eta maila kultural egoki bat eskuratu. Behin beren kapazitate osoen jabe izanik botoa erabiltzeko gai izango lirateke. Hori dela eta, influentzia horretatik askatzera arte emakumeen sufragioa atzeratu beharko litzateke. Horrela izanik, Errepublika ez litzateke arriskuan aurkituko, izan ere, emakumeek boto-eskubidea izango balute eskuinaldeko alderdiei emango lioketela botoa ondorioztatzen zen eta horrek, Errepublikaren gainbehera ekarriko luke<sup>35</sup>.

Halaber, askoren ustez ere emakumeen sufragio eskubidea mugatzea aukera ona izango litzateke, emakume batzuei bakarrik boto-eskubidea esleitzuz. Emakumeen barnean hain zuzen ere, intelektualak eta langileak zirenak errealitatearen jabe izango lirateke eta horiek, maila egokia izango lukete jakiteko zer zen hobeagoa Errepublikarentzat. Ideia horiek aintzat hartuz, emakume intelektual zein langileak beren botoa erabiltzeko gai izango lirateke. Gainera, kontuan izan behar dugu, emakumeei boto-eskubidea ez esleitzea, hau da, populazioaren erdiari eskubidea ukatzea, jarrera guztiz antidemokratikoa izango litzatekeela eta hortaz, errealitate bat zen emakumeei botoa esleitu beharra zegoela, hori gauzatzeko bide egokiena atzeratuz edota mugak ipiniz izanik. Bestalde, ezinezkoa zen jarrera antidemokratiko hori hartzea, helburua erregimen berrian garbia baitzen; atzean utzi nahi zen Espainiak ordura arte izandako jardura politiko zein soziala. Ondorioz, emakumeen sufragioa debekatuko balitz, kontraesan bez beteko litzateke erregimen berria<sup>36</sup>.

Bestetik, Clara Campoamor, Alderdi Sozialista eta eskuin aldeko alderdiak topatzen ditugu. Hauek, emakumezkoen boto-eskubidearen alde agertzen ziren, baina salbuespen batzuekin beraien artean. Clara Campoamorrek eta Alderdi Sozialistak, ikuspuntu demokratiko bat babesten zuten, hiritartasunaren oinarriak bermatzen zituztelarik, bai eta oinarri ideologiko eta etikoak. Hauen iritziz, ikuspuntu praktikoa alde batera utzi beharra zegoen, erregimen berri bat jarri baitzen martxan, Errepublika, eta hori demokratikoa zen, beraz, erregimen berri horrek bermatu beharko litzatekeen oinarriak mantendu behar ziren. Gainera, hauen iritziz, Errepublikaren bizirautea emakumeak bertan integratuz emango litzateke eta ez baztertuz. Hortaz, Errepublika

---

<sup>35</sup> Geraldine M. Scanlon, *Op. cit.*, 275.

<sup>36</sup> Rosa M. Capel, *Op. cit.*, 95-99.

sendo bat eraiki nahi bazen, emakumeak bertako parte-hartzaile bilakatu behar ziren<sup>37</sup>. Campoamorrek bere argumentuetan ostera, garbi uzten zuen emakumezkoen hiritartasuna, hau da, emakumeak hiritar kontsideratzen zituen, gizonezkoen maila berean ezartzen zituelarik, hori horrela, garaian ezartzen zen sexu arteko ezberdintasuna alde batera uzten zuen, eta Nerea Arestik esaten duen bezala Campoamorrek “desarrolló los argumentos característicos del que se ha denominado feminismo de la igualdad, frente a la reivindicación de la diferencia como fundamento legitimador de las demandas feministas”<sup>38</sup>.

Hala ere, sozialisten artean ikuspuntu ezberdinak aurkitzen ditugu, Margarita Nelken bezala esaterako. Honen ustez, emakumea influentziaturik zegoen Elizaren aldetik eta ondorioz, preparatu beharra zegoen, hori gauzatu bitartean emakumeen aldeko boto-eskubidea atzeratzea zen ideiarik hoberena. Hortaz, sozialisten artean iritzi ezberdinak topatzen ditugu, errealitate ezberdinak aurkituz<sup>39</sup>.

Eskuin alderdietan finkatuz, nahiz eta emakumezkoen boto-eskubidearen alde finkatu, ikuspuntu praktikoa bati begira egiten zuten. Lehen aipaturiko Elizaren eragina emakumeengan kontuan izanik, emakumeek bozka emateko orduan eskuindar alderdiei emango liokete eta beraz, eskuin alderdiak irtengo zirela onuradun ondorioztatzen zen. Horrela, eskuineko alderdiek boterea izanik, Errepublikarekin amaitzea posiblea izango litzateke<sup>40</sup>. Hori dela eta, eskuineko alderdiek, emakumezkoen sufragioa atzeratzearen alde agertzen zirenei leporatzen zieten Konstituzio demokratiko baten alde ez egitea. Aldi berean, garbi uzten zuten emakumeen botoa mugatuz biztanleriaren erdiaren nahia ez litzatekeela irudikatuko arlo politikoan. Bestalde, aurpegira botatzen zen ere Primo de Riveraren garaian bermaturiko emakumeen boto-eskubidea Errepublikan ez gauzatzea guztiz kontraesankorra zela, gogoratzen badugu, Primo de Riverak emakumeei sufragioa esleitu zien esparru batzuetan<sup>41</sup>.

Oro har, garbi ikusten da alderdi askok interes politikoengatik soilik kezkatzen zirela. Horrela izanik, aukera politikoak zituzten helburu, Errepublikaren bermea bere horretan mantentzea edo deuseztatzea zirelarik helburu nagusiak. Era berean, ikuspuntu

---

<sup>37</sup> *Ibidem*, 102-103; Gloria A. Franco Rubio, 1986, *Op. cit.*, 253.

<sup>38</sup> Nerea Aresti, “Los argumentos de la exclusión. Mujeres y liberalismo en la España Contemporánea”, *Historia Constitucional*, 13 (2012): 428.

<sup>39</sup> Geraldine M. Scanlon, *Op. cit.*, 152-153.

<sup>40</sup> Aurora Morcillo Gómez, *Op. cit.*, 70.

<sup>41</sup> Rosa M. Capel, *Op. cit.*, 104.

demokratikoagoa zuen alderdia ere topatzen dugu, teoriarik eta hiritartasunean oinarritzen zirelarik.

## 5.2. Clara Campoamorren defentsa

Kongresuaren eta pil-pilean zegoen debatearen aurrean, paper funtsezkoa jokatu zuen Clara Campoamorrek, emakumeen boto-eskubidearen defentsan agertu zen, emakumeen sufragioaren aldeko buru nagusienetako bat izan zelarik. Askatasunaren oinarriak defendatzen zituen, berdintasunaren alde jokatzeko zuelarik, hori dela eta, John Stuart Mill-en oinarriak aurkitzen ditugu bere ideietan. Bere ustez halaber, demokrazia batean sexu bereizketa gauzatzea guztiz pentsaezina zen. Demokrazia bera izan behar baitzen sexuen arteko berdintasuna bermatu behar zuena<sup>42</sup>.

Aurreko atalean azaldutako posturretatik abiatuz, debatea sortu zen emakumeen boto-eskubidearen inguruan, Konstituzio Proiektua idazteko Komizioak aurkezturiko 34. artikularen inguruan hain zuzen. Debatea oro har, bi egunetan gauzatu zen, 1931ko irailaren 30ean eta urriaren 1ean.

Lehen egunean, bi emendakin aurkeztu ziren 34. artikulua aldatu nahian. Aurkeztu zuen lehena Manuel Hilario Ayuso, Partido Republicano Democrático Federal-eko alderdikidea izan zen. Honek, muga bat ezarri nahi zuen emakumeen sufragioarekiko, gizonen bozkatzeko urtea 23 urteetan uzten zuen, baina emakumeek botoa emateko aukera 45 urteak bete eta gero ezartzeko aldaketa proposatzen zuen, berak esan zuen bezala, “hasta este momento, el equilibrio psíquico, la madurez mental y el control de la voluntad no es alcanzado por el sexo femenino”<sup>43</sup>. Oinarri zientifiko garbier falta agertzen zuen, horregatik, bozkatu ere ez zen egin emendakin hau. Emakumeen boto-eskubidearen defentsan Clara Campoamor eta César Juarros medikua agertu ziren. Azken honek, gaineratu zuen, emakumeek arrisku psikikoak izateko unea 45 urtetik gora finkatzen zela eta beraz, emendakin horrek zentzurik ez zuela gehitu zuen. Gainera, emakumeek gizonezkoek ez zituzten baloreak zituztela argudiatzen zuen, hots, emakumeek bestelako sentimenduetatik bat zutelako gizonezkoekin alderatuz. Hori dela eta, medikuaren ustez beharrezkoa zen botoa, bi sexuek zituzten ezaugarri ezberdinek aberastasuna suposatzen baitzeketen Errepublikari begira. Argumentu horretan garbi

---

<sup>42</sup> Mary Nash, 2012, *Op. cit.*, 149.

<sup>43</sup> Rosa M. Capel, *Op. cit.*, 100.

ikusten dugu garaian ezartzen zen sexu ezberdintasuna<sup>44</sup>. Horren aurrean, sexu ezberdintasuna alde batera utzirik Clara Campoamor agertu zen sumindurik emendakinaren aurrean, bere iritzia agerikoa zen; “habíamos entrado en el terreno de la chabacanería y la befa, como argumento fácilmente empleado contra las ilusiones reivindicadoras de la mujer”<sup>45</sup>.

Rafael Guerra del Río-k, Partido Republicano Radicaleko alderdikideak aurkeztu zuen bigarren emendakina. Honek bere emendakinean, artikulua berezko izatea mantentzen zuen, baina aldaketa txiki baten alde egiten zuen; 34. artikulua horretan agertzen zen “mismos” hitza kentzea bultzatzen zuen. Artikulua hortaz, horrela geldituko litzateke; “los ciudadanos de uno y otro sexo mayores de 23 años, tendrán los derechos electorales que determinen las leyes”. Honen bidez, sexu arteko ezberdintasun garbi bat ezarri zitekeen boto-eskubidea esleitzeko orduan, ondorioz, emakumeen eskubideak mugatuak izan zitezkeen. Sufragioa bermatuko zen eskubidea izango zen, baina emendakina onartua izanez gero, eskubide berdinak ez ezartzearen atea irekirik mantentzen zen<sup>46</sup>. Horren aurrean, emendakina deuseztatua bazen eta “mismos” hitza bere horretan mantentzen bazen, bai emakumeek eta bai gizonen eskubide berdinak izango litzukete.

Bigarren emendakin honen aurrean, garbi zuen Clara Campoamorrak bi sexuen arteko ezberdintasuna ez zela gauzatu behar, hau da, bere ustez berdintasuna bermatu behar zen bi sexuen artean, guztizkoa izan behar zuen berdintasun horrek, ez zirelarik ez gizonak ez eta emakumeak kondizionatu behar. Gainera, irmo agertu zen emendakinari erantzuteko orduan. Izan ere, aurreko egunean, irailaren 29an, onarturiko 23. artikulua, Konstituzioan 25.a izango zenari eutsi zion, zeinak horrela zioen; “no podrán ser fundamento de privilegio jurídico el nacimiento, el sexo, la clase social, la riqueza, las ideas políticas y las creencias religiosas”. Bertan garbi islatzen da dagoeneko sexu arteko berdintasuna bermaturik zegoela eta beraz, Campoamorrak Guerra del Ríoren emendakina defendatzen zuten alderdiei leporatzen zien berdintasuna beraiek nahi zutenean ezartzen zutela, “Si habéis votado la igualdad, no podéis mantener la

---

<sup>44</sup> Nerea Aresti, *Op. cit.*, 426-427.

<sup>45</sup> Clara Campoamor, *Mi pecado mortal: el voto femenino y yo* (Bartzelona: La Sal, 1981), 114.

<sup>46</sup> Rosa M. Capel, *Op. cit.*, 101-102.



condición. Eso es una cosa ilógica. ¿Dónde empieza la igualdad entonces, señores diputados? ¿Cuándo SS.SS. quieran?”<sup>47</sup>.

Azkenean Guerra del Ríoren emendakina bertan behera gelditu zen botazioa gauzatu ondoren, 153 kontrako boto eta 93 aldeko boto jaso zituen<sup>48</sup>.

Emakumeen boto-eskubideaz debatitu zen bigarren eguna, urriaren 1a izan zen. Bertan, artikulua inguruko botazioa gauzatu zen, baina aurretik debate zabal bat aurkeztu zen, Campoamorren hitzek dioten bezala, “El primero de octubre fue el gran día del “histerismo masculino”, dentro y fuera del Parlamento (...)”<sup>49</sup>.

Debatean zehar egon zen ahots esanguratsu bat Victoria Kentena izan zen. Hau, bere alderdiarekin bat zetorren, Partido Republicano Radical Socialista, emakumeen boto-eskubidea atzeratzearen aldekoa baitzen. Aldi berean, Kent botoa mugatzearen kontra agertzen zen, hau da, emakume batzuei bakarrik boto-eskubidea bermatzearen kontra agertzen zen. Izan ere, zein izan zitekeen botoa erabiltzeko gai eta ez ezartzeko orduan akatsak egin zitezkeela pentsatzen zuen<sup>50</sup>. Bere alderdiaren ildo beretik jarraituz, debatean garbi utzi zuen bere iritzia, emakumeak elizaren influentziatik atera behar ziren beren boto-eskubidea erabiltzeko, horrela, behin emakumeak errealitateaz jabe eginik botoa emateko eskubidea izango zuten. Era berean, Errepublikaren bizirautea ez zen arriskuan jarriko eta bere bermeak bere horretan jarraituko zuten. Gainera, bere defentsan azaldu moduan, bere emakume idealari uko egiten zion, Errepublika zelako lehenetsi beharrekoa. Horrela, Kentek garbi adierazi zuen bezala bere diskurtsoan, “(...) no es una cuestión de capacidad; es cuestión de oportunidad para la República”<sup>51</sup>. Hori horrela, agerikoa da erabilera praktikotik begiratzen zuela boto-eskubidea, hiritartasunaren oinarria bigarren plano batean utziz.

Clara Campoamor, berriz, emakumeen boto-eskubidearen defentsan irten zen horren aurrean, gorago aipatu moduan bere diskurtsoa alderdi teorikoan oinarritzen zelarik, oinarri demokratikoetan. Bere aburuz, sufragioaren kontrako iritzi eta defentsa guztien oinarrietan emakumeen ignorantzia eta kultura eza zegoen. Hori dela eta, Ganberaren aurrean hainbat datu plazaratu zituen, XIX. mende amaiera eta XX. mende

---

<sup>47</sup> Clara Campoamor, *Op. cit.*, 133.

<sup>48</sup> Geraldine M. Scanlon, *Op. cit.*, 276.

<sup>49</sup> Concha Fagoaga eta Paloma Saavedra, *Op. cit.*, 104.

<sup>50</sup> Rosa M. Capel, *Op. cit.*, 110.

<sup>51</sup> Ana Aguado, “Entre lo público y lo privado: sufragio y divorcio en la Segunda República”, *Ayer*, 4 (2005): 116.

hasierako tartean emakumeen alfabetizatzeak nola gora egin zuen erakutsiz. Datuek, zehaztasun falta erakutsi zuten hala ere<sup>52</sup>.

Campoamorrek emakumeen defentsa garbi bat erakutsi zuen, horretarako emakumeek boto-eskubidearengatik nahikoa borroka egin zuten edo ez zalantzan jartzea eta hori, auziaren epizentroa izatea hutsala zela plazaratu zuen. Gainera, zalantza emakumeengan erortzen zen moduan, gizonengan zalantzarik ez izatea leporatzen zuen, hau da, Errepublika ezarri zen momentutik aurrera gizonekiko konfiantza osoa agertu zen, beren eskubideak ez zirelarik inoiz ere zalantzan jarri, baina emakumeen inguruan hitz egitean, azken honen kapazitateak zalantzan jartzea egozten zuen Clara Campoamorrek<sup>53</sup>, “¿Cómo puede decirse que la mujer no ha luchado y que necesita una época, largos años de República, para demostrar su capacidad? Y ¿por qué no los hombres? ¿Por qué el hombre, al advenimiento de la República, ha de tener sus derechos y ha de ponerse un lazareto a los de la mujer?”<sup>54</sup>. Beraz, garbi ikusten den bezala, sexu ezberdintasuna errealitate bat zen, gizon eta emakumeak guztiz ezberdindurik zeudelarik. Horren aurrean, Campoamorrek, bi sexuek eskubide berdintasuna izateko borroka egin zuen.

Sexu berdintasun hori bermatzeko, biologian ere oinarritu zen Campoamor bere defentsa gauzatzeko orduan; gizaki oro, bi sexuetatik jatorritako pertsona izanik, gizonezkoek emakumeen ignorantzia eta kapazitate eza baieztatzen zutenean, beren barnean inkapazitate horren zati bat zutela baieztatzen zuen, “(...) aunque no queráis y si por acaso admitís la incapacidad femenina, votáis con la mitad de vuestro ser incapaz”<sup>55</sup>. Hortaz, bere argudioari jarraikiz, gizaki oro bi sexuen arteko batasuna izanik, berdintasuna bermatu behar zen. Ganberan baieztatzen zen emakumeen inkapazitatea egia bazen, gizon orok eta emakume orok izango zuten, guztiak bi sexuen batasunean baitute jatorria.

Halaber, lege naturaletara ere jo zuen sexu arteko berdintasuna bermatu beharra zegoela garbi utzi nahian. Horrela izanik, emakumeek boto-eskubidea ez jasotzea gizonen erabakia izango litzateke, baina hori ez litzateke zilegi izango lege naturaletara joz Clara Campoamorren iritziz, izan ere, bi sexuak berdinak diren heinean eskubide

---

<sup>52</sup> Concha Fagoaga eta Paloma Saavedra, *Op. cit.*, 111-112.

<sup>53</sup> Ana Aguado, *Op. cit.*, 116-117.

<sup>54</sup> Clara Campoamor, *Op. cit.*, 144-145.

<sup>55</sup> *Ibidem*, 150.

berdintasuna jaso beharko lukete. Gainera, bere defentsan, Errepublika sendo bat eraiki nahi bazen, garbi utzi zuen hori emakumeak gehitzen gauzatu behar zela eta ez baztertzen. Horri gehituz, emakumeek indar berri bat suposatuko luketela Errepublikarentzat<sup>56</sup>. Emakumeak alde batera utzi ezker akatsa izango litzatekeela garbi zuen eta horregatik argi mintzatu zen, “No dejéis a la mujer que, si es regresiva, piense que su esperanza estuvo en la Dictadura; no dejéis a la mujer que piense, si es avanzada, que su esperanza de igualdad está en el comunismo”<sup>57</sup>.

Iritzi ezberdinak Ganberan plazaratu ostean, botazioa gauzatu zen; 161 boto artikulua alde atera ziren eta kontra berriz, 121, 188 kidek abstentzioaren alde egin zutelarik. Aipatu beharra dago, oro har, alderdiak blokean mantendu zirela eta alderdikide gehienek berdin bozkatu zutela. Hori bai, salbuespenak egon ziren, Clara Campoamor bera edota José Ortega y Gasset diputatua bezala, azken honek ere bere alderdiaren kontra egin zuen, Partido Republicano Radical Socialista, emakumeen sufragioaren alde agertu zelarik. Horrelako jarrera aipagarrienetako bat, Indalecio Prieto Alderdi Sozialistako kideak izan zuen, emakumeen boto-eskubidearen kontra agertzen baitzen. Botazioa gauzatzeko unean gainera, Ganberatik irten zen, bere atzetik beste alderdikide batzuk ere irten zirelarik. Jarrera hori hartuz, alderdiarekiko istiluak jazotzea ekiditen zuen. Hau da, Ganberan geratuko balitz eta ezezkoa bozkatuko balu, istiluak gauzatzeko lirateke seguruenik eta bere iritziaren kontra ez egiteko, Ganberatik irten zen<sup>58</sup>. Botazioa gauzatu ondoren bestalde, garbi adierazi zuen Prieto diputatuak emakumeen sufragioarekiko zuen iritzia, “¡Se ha dado una puñalada traspera a la República!”<sup>59</sup> oihukatuz. Era berean, Guerra del Ríok ere bere iritzia helarazi zuen, “Es lo más grave que se ha votado hasta ahora, porque ha de favorecer enormemente a las derechas”<sup>60</sup>.

Hala ere, emakumeen boto-eskubidearen alde bozkatzeko diputatu gehien zituen alderdia zen Alderdi Sozialista, eta beraz, botoak galtzea ez zen komenigarria. Horren aurrean, Clara Campoamor bera ere oso kontziente zen Alderdi Sozialistaren botoak zuen garrantziaz, izan ere beren babesik gabe, lan oso nekeza zuen aurretik egiteko. Aldi berean, Campoamorren pentsamenduan barneratuz, garbi adierazi zuen,

---

<sup>56</sup> *Ibidem*, 152-153.

<sup>57</sup> Geraldine M. Scanlon, *Op. cit.*, 277.

<sup>58</sup> Rosa M. Capel, *Op. cit.*, 115-116; Concha Fagoaga eta Paloma Saavedra, *Op. cit.*, 121.

<sup>59</sup> Clara Campoamor, *Op. cit.*, 185.

<sup>60</sup> *Ibidem*, 185.

emakumeen sufragioaren kontrako indarrek pertsuasio garbi bat erabili zutela sozialistak bereganatzeko, baina salbuespenak salbu, sozialistak oro har emakumeen sufragioaren alde agertu ziren. Era berean, botoa emateko adinaren inguruan ere debatea sortu zen. Alderdi Sozialistak paper funtsezkoa izan zuelarik auzi honetan; sozialistek botoa emateko adina 21 urteetara jaitsi nahi zuten, baina eskaera hori bertan behera gelditu zen. Ondorioz, bozka emateko adina sakrifikatu zuten sozialistek emakumeen boto-eskubidea bermatzeko<sup>61</sup>.

Azkenik, Konstituziora gehitua izan zen artikulua 36. zenbakiarekin; “los ciudadanos de uno y otro sexo, mayores de 23 años tendrán los mismos derechos electorales, conforme determinen las leyes”<sup>62</sup>.

Hala ere, nahiz eta artikulua onartua izan, prentsaren inguruan kritika ugari zabaldu ziren. Batzuk erabakiarekin bat agertu ziren, Crisol bezala, zeinetan artikulua onartu ondoren, hainbat diputaturen aldetik hartutako jarrera antidemokratikoak salatu ziren. El Socialista-k ere antzeko jarrera bat hartu zuen, emakumeak hezi behar zirela aldarrikatu zuen, hori baitzen Errepublika aurrera ateratzeko egin beharreko lana beraien ustez. Alabaina, kontra agerturiko kritikak ere ugariak izan ziren, Errepublikaren gainbehera emango zela esaten zuten egunkariak ere aurkitzen zirelarik<sup>63</sup>.

### **5.3. Abenduko auzia**

Emakumeen sufragio eskubidearen kontrako ahotsak ez ziren hor bertan gelditu, Legeak, Xedapen Gehigarri Iragankorrak aurkeztea baimentzen baitzuen. Horien bidez, dagoeneko onarturik zeuden artikulua aldatu zitezkeen, baina soilik Errepublikarentzat onak izango ez ziren artikulua aldatu zitezkeen<sup>64</sup>.

Aurkeztu zen lehen Xedapen Iragankorra Matías Peñalba diputatuak, Acción Republicanako alderdikideak, egin zuen azaro amaieran. Xedapena, hamar diputatuk sinatu zuten, horien artean Victoria Kent aurkitzen zelarik. Peñalbak ez zuen emakumeen boto-eskubidea zalantzan jartzen, baizik eta bere ustez zalantzagarrria zena emakumeek boto-eskubidea nola erabiliko zuten zen. Horretarako Xedapenean eskatzen

---

<sup>61</sup> *Ibidem*, 172-177.

<sup>62</sup> Rosa M. Capel, *Op. cit.*, 122.

<sup>63</sup> Concha Fagoaga eta Paloma Saavedra, *Op. cit.*, 125-126; Clara Campoamor, *Op. cit.*, 191.

<sup>64</sup> Laura Sánchez Blanco, *Op. cit.*, 117.

zuen zera zen; legegintzarako hauteskundeetan, probintzietan eta eskualdeetan emakumeen sufragioa atzeratzea zeuden udalak berritu arte. Hau da, udal hauteskundeak ospatzeko orduan emakumeek botoa eman ondoren jasotzen zen emaitzen arabera ondorioak ateratzea zen helburua. Eskuinak irabaziko balu udal hauteskunde horietan, helburua garbia izango litzateke; emakumeen boto-eskubidea mugatzea edo atzeratzea<sup>65</sup>. Horrelako neurrien alde jokatzeko zuten asko izan ziren, hots, hauteskunde batzuetan lortzen zen emaitzaren jabe eginez ondorengoak planifikatzea, emakumeen botoak horrela Errepublikari kalterik ez eragiteko.

Emakume asko Xedapen Iragankor horren kontra agertu ziren, ez zeuden prest dagoeneko lorturik zuten eskubidea bertan behera uzteko. Victoria Kent, aldiz, Xedapenaren alde irten zen. Bere ustetan, lehenik emakumeak hezi beharra zegoen, bere kontzientzia ororekin botoaren nondik norakoetan ongi jarduteko. Feministek, kontrako iritzia zuten, izan ere, beraientzat beharrezkoa zen boto-eskubidea lortzea, horrela, ate berriak irekiko litzazkieke emakumeei eta hori izango litzateke abiapuntua emakumeek hezkuntza jasotzeko<sup>66</sup>.

Hala ere, beste Xedapen Iragankor bat aurkeztu zen egun batzuk geroago. Acción Republicanako Terreno diputatuak aurkeztu zuen, honek, emakumezkoen sufragioa atzeratzea eskatzen zuen, baimena emanik botoa emateko emakume alargun eta ezkongabeei<sup>67</sup>.

Bi Xedapen Iragankorrek, abenduaren 1ean izan ziren bozkatuak. Peñalbaren alde hainbat diputatu irten ziren, kontra agertu zen ahots esanguratsuenetako bat Clara Campoamor izan zelarik, honek garbi adierazi zuen ez zela ezer berririk atxikitzen Konstituzioari eta errebisionismoa egitea leporatu zuen. Gainera, oraingoan garbi zuen ez zela soilik emakumeen boto-eskubidearen defentsan irteten, baizik eta Konstituzioaren defentsa egiten zuela. Horrela izanik, emakumeen boto-eskubidea berriz ere ezbaian jartzea lortzen zuten emakumeen sufragioa ezartzearen kontra zeudenek, auzia geldotuz. Bestalde, Clara Campoamorrekin batera, aurreko hilabetean emakumeen sufragioa bermatzearen alde posizionatu ziren eskuineko alderdiak ez ziren

---

<sup>65</sup> Rosa M. Capel, *Op. cit.*, 131-132; Geraldine M. Scanlon, *Op. cit.*, 279.

<sup>66</sup> Rosa M. Capel, *Op. cit.*, 132-133.

<sup>67</sup> *Ibidem*, 133.

Ganberan aurkitzen, dagoeneko gai erlijiosoak debatituak izan baitziren<sup>68</sup>. Hortaz, emakumeen botoa esleitzeko defentsan babes baten hutsune nabaria aurkitzen zen.

Campoamorrek argi zuen, alferrikakoa zela berriz ere emakumeen boto-eskubidea ezbaian jartzea, dagoeneko debatitu eta onarturik zegoen auzia baitzen eta berriz ere gaia azaleratzeak, onurak baino kalte gehiago ekarriko zituela garbi zuen. Emakumeei eskubide bat bermatu eta jarraian kentzea akats larritzat sailkatzen zuen; “la mujer habrá sido vencida materialmente en el disfrute del voto, en el tiempo que ha de ejercerle, pero quien será vencida moralmente e idealmente será la Cámara, serán las Constituyentes; será la Constitución, que nacerá con un vicio de origen (...)”<sup>69</sup>.

Garbi dago, aurretik eman zen debate bera gauzatu zela oraingoan, gainera, beste hainbat diputatuk parte hartu zuten debatean, horien artean bat topatzen dugularik adierazgarri, Barriobero diputatuaren interbentzioa hain zuzen. Honek emakumeen boto-eskubidea mugatu beharra zegoela garbi adierazten zuen, horretarako bide egokiena emakume bakoitzaren askatasun legala begiratzea zela hoberena pentsatzen zuen, hau da, emakumeei sufragioa baimentzea baina beraien egoera zibilaren araberakoa izatea bultzatzen zuen. Gizonen menpe zegoen emakume orok ondorioz, ez luke boto-eskubidea izango, bai aldiz, alargunek, dibortziatuek edota ezkongabeek<sup>70</sup>.

Honi jarraiki hainbat diputatuk hitz egin ostean, botazioa gauzatu zen Xedapen Iragankorraren inguruan, 127 boto alde agertu ziren eta kontra berriz, 131. Botoen arteko ezberdintasuna oso txikia zen, gutxigatik ez ziren emakumeak bere boto-eskubide gabe gelditu. Horren arrazoi garbientako bat eskuin aldeko alderdiak Ganberan presente ez egotea izan zen. Xedapenaren alde, Partido Republicano Radical, Partido Republicano Radical Socialista, al Servicio de la Republica, Acción Republicanako kide gehienak, galiziar batzuk, Federal batzuk eta Santiago Albak bozkatu zuten. Kontra, Alderdi Sozialistak, progresistak, katalanek, Federal gehiengoak, Clara Campoamor, Ossorio y Gallardo, Melquiades Álvarez, Sánchez Guerra eta Alcalá-Zamora-k bozkatu zuten<sup>71</sup>. Azken hau, nahiz eta bera feminista kontsideratu eta emakumeen boto-eskubidearen alde posizionatu, emakumeen botoa Errepublikarentzat

---

<sup>68</sup> Concha Fagoaga eta Paloma Saavedra, *Op. cit.*, 134-135; Clara Campoamor, *Op. cit.*, 205.

<sup>69</sup> Clara Campoamor, *Op. cit.*, 207-208.

<sup>70</sup> Rosa M. Capel, *Op. cit.*, 141.

<sup>71</sup> *Ibidem*, 142-143.

arriskutsua izan zitekeela pentsatzen zuen, bere baitan emakumeen gehiengoak independentzia eta kultura falta zuela pentsatzen baitzuen<sup>72</sup>.

## 6. ONDORIOAK

Ondorioekin hasiz, lan guztian azalduko emakumeekiko auzia azaleraturik gelditu da. Lanaren hasieratik emakumeen boto-eskubidearen inguruan gertaturiko auzien inguruan murgildu gara, II. Errepublikara iritsi arte. Lanaren muinean barneratuz, diputatuen arteko auziak azaleratu ditugu, emakumeen sufragioaren inguruko auzi ezberdinak azalduz eta plazaratuz.

Behin, emakumeen boto-eskubidea onartua izan eta gero, alderdiek, batez ere ezkerreko alderdiek, emakumeak bereganatzeko propaganda abiarazi zuten. Eskuinaren aldetik berriz, garbi gelditu zen emakumeek boto-eskubidea izatea helburu politiko agerikoa zela, beraiek garbi utzi baitzuten emakumeen influentzi eta izate-eremua etxea ingurunea zela. Gainera, emakumeek boto-eskubidea lorturik, beren presentzia nabarmenki handitu zen arlo publikoan, hainbat asoziazio eta talde sortu zirelarik, asko alderdi edota ideologia politikoei loturik zeudelarik, Asociación Femenina de Acción Popular, Unión Republicana Femenina edo Agrupación Femenina Socialista bezala<sup>73</sup>.

Emakumeek lehen aldiz beraien botoa erabiltzeko aukera 1933ko hauteskundeetan izan zuten. Bertan, eskuineko alderdiak atera ziren nagusi, eta ondorioz, emaitza horien errua emakumeengan erori zen. Kontuan hartu beharra dago, hauteskundeetan emakumeak faktore berria izateaz gain, bestelako eragileak ere presente egon zirela. Horien artean, alde batetik, ezkerreko alderdiak koalizio batean agertu ziren. Bestetik, Europako influentziak ere kontuan hartu beharrekoak dira, izan ere, mugimendu totalitarioek geroz eta indar gehiago zuten. Era berean, Casas Viejaseko gertakariak oihartzun nabaria izan zuten gizartean, Errepublika garaian une gatazkatsua suposatu zuelarik. Faktore zein eragile guzti hauek, bigarren plano batean gelditu ziren eta atentzioa batez ere emakumeengan finkatu zen<sup>74</sup>.

---

<sup>72</sup> Geraldine M. Scanlon, *Op. cit.*, 152.

<sup>73</sup> Rosa M. Capel, *Op. cit.*, 168-171.

<sup>74</sup> Geraldine M. Scanlon, *Op. cit.*, 279-280; Gloria A. Franco Rubio, 1986, *Op. cit.*, 255.

Clara Campoamorri dagokionean, 1933ko hauteskundeetan ez zen diputatu moduan aukeratua izan, hala ere, urte horretako amaieran Lerroux-ek Beneficencia y Asistencia Social-eko zuzendari izendatu zuen, urte bete geroago bere dimisioa aurkeztu zuelarik. Gainera, Partido Republicano Radical Socialista utzi zuen denbora gutxira eta Izquierda Republicana-ra batzen saiatu zen, baina bere eskakizuna bertan behera gelditu zen. Gerora, 1936ko hauteskunderi begira, Unión Republicana Femenina alderdiarekin, zeinak berak sortu zuen, Frente Popularrera batzen saiatu zen, baina oraingoan ere, bere sarrera ezeztatua izan zen eta Kongresuan ez zuen eserlekurik lortu<sup>75</sup>.

Bestalde, 1933ko hauteskundeetako emaitzak ikusi ondoren, ezkor eta penaturik agertu zen Campoamor. Neurri batean, emakumeekiko konfiantza zuela agertzen zuen eta horregatik beraien aldetik erantzun bat jasotzea espero zuen. Dena den, oso kontziente zen, Errepublikak apenas eskaini zien babesaz emakumeei eta hori eragile garrantzizkotzat jotzen zuen. Ezkerreko alderdi batzuk eginiko erakarpen eta emakumeak arlo politikoan hezteko egindako ahalegina positiboki baloratu zuen, emakumeak alde batera utzi zituzten alderdiak gogorki epaitu zituelarik, “hoy tocan las consecuencias de su narcisismo, de sus desaires y de su torpeza política, una más entre las muchas que les son imputables”<sup>76</sup>.

Lanari amaiera emanaz eta iritzi propioa kaleratuz, garbi dago II. Errepublikan lorturiko boto-eskubideak aukera berriak bermatu zizkiela emakumeei, hein handi batean arlo publikoan zein politikoan presentzia nabariagoa jaso zutelarik. Hala ere, gaineratzekoa da, eskubide hori bermatzeko ez zela presio sozial handirik egon, hori dela eta, askotan konparaketak gauzatu dira europar beste potentzietan emandako mugimenduekiko, Britainia Handiarekiko esaterako. Ondorioz, askotan, Espainian gauzaturiko emakumeen inguruko mugimendua feministatzat sailkatzea kostatu egin da. Kontuan izan behar dugu horrekin, mugimendu bakoitzak bere ezaugarri propioak dituela, nahiz eta neurri txikiago edota handiago batean gauzatu, hots, tokian tokiko ezaugarriak zein garapen prozesuak ez dira berdinak izango eta bakoitzak bere errealitatea izango du. Gainera, feminismo historikoa sailkatzeko zein definitzeko orduan zailtasun nabariak aurkitzen dira. Beraz, garbi dago, tokian tokiko ezaugarriak hartu behar direla aintzat, testuinguru bakoitza ezberdina baita.

---

<sup>75</sup> Laura Sánchez Blanco, *Op. cit.*, 118.

<sup>76</sup> Clara Campoamor, *Op. cit.*, 255.



Bestetik, agerikoa da inflexio puntu garrantzizko bat izan zela emakumeen boto-eskubidea eskuratzea. Izan ere, bertatik abiatuz, esan bezala, emakumeek arlo publikoan presentzia nabariagoa jasoko zuten, hori dela eta, emakumeei ate berriak ireki zitzaizkien. Alabaina, ez litzateke zilegi izango alde batera uztea emakumeen inguruan gauzaturiko bestelako aldarrikapen edota sorturiko hainbat talde. Horiek hein handi batean bere eragina izan baitzuten emakumeen egoera hobetzeari dagokionean. Aldarrikapen nabariak izan ziren hezkuntzaren arloan eginikoak eta emakumeek goimailako ikasketak gauzatzeko aukerak izateko egindako deialdarra.

Gainera, ikusi dugun bezala 1920. hamarkadatik aurrera emakumeen presentzia geroz eta nabariagoa egin zen arlo sozialean, nolabait sexuen arteko eskubide berdintasunak aldarrikatu zirelarik. Hau da, gizartean hain zabaldurik zegoen irizpide domestizista eta emakumeen inguruko gutxiengoaren ideia lausotuz joan zen. Lanean zehar ikusi dugun modura, diputatuek aurkezturiko emendakin asko, zeinak emakumeen gutxiengo izatea oinarri hartzen zuten, bertan behera gelditu ziren. Hala ere, aintza izan behar dugu, bi sexuen arteko ezberdintasuna nabarmenki ezartzen zela diputatu gehienek artean.

Emakumeen boto-eskubidea debatitzeko orduan argi dago, bi ikuspuntu nagusitu zirela, batez ere ikuspuntu praktikoak ahots nabarmenak zabaldu zituelarik. Ikuspuntu hori oinarri harturik, Errepublikaren bermea bilatzen zen. Debatean hortaz, emakumeen edota Errepublikaren arteko aukeraketa gauzatzea ematen zen, neurri handi batean argi zegoen Elizak emakumeengan eragin handia zuela. Baina aldi berean, Campoamorrek bere defentsan garbi adierazten zuen moduan, emakumezkoen kapazitatea zalantzan jartzen zen moduan, gizonezkoen inguruan ez ziren inoiz zalantzak agertu eta ez zen horren inguruko eztabaidarik gauzatzen. Ondorioz, garbi dago, emakumeen inguruko aurreiritziak erroturik zeudela gizartean. Horren aurrean, ikusi dugun moduan Campoamorrek defentsa aberasgarri bat egin zuen, hiritartasunaren oinarriak hartuz.

Guztiaren ondorioz, Espainiako II. Errepublikan emakumeen boto-eskubidearen inguruan gauzaturiko gatazka azalratzea ahalbidetu da, arlo berri batean murgildu garelarik. Beraz, lanaren helburua gauzatatuz ematen dugu, gai berri bat jorratuz eta jakintza gehiago barneratuz.

## 7. BIBLIOGRAFIA

- Aguado, Ana. “Entre lo público y lo privado: sufragio y divorcio en la Segunda República”. *Ayer*, 4 (2005): 105-134.
- Aresti, Nerea. “Los argumentos de la exclusión. Mujeres y liberalismo en la España Contemporánea”. *Historia Constitucional*, 13 (2012): 407-431.
- Campoamor, Clara. *Mi pecado mortal: el voto femenino y yo*. Barcelona: La Sal, 1981.
- Capel Martínez, Rosa M. *El Sufragio Femenino en la Segunda República Española*. Madrid: Horas y horas, 1992.
- Díaz Fernández, Paloma. “La dictadura de Primo de Rivera. Una oportunidad para la mujer”. *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V, Historia Contemporánea*, 17 (2005): 157-190.
- Fagoaga, Concha. *La voz y el voto de las mujeres, 1877-1931*. Barcelona: Icaria, 1985.
- Fagoaga, Concha, eta Saavedra, Paloma. *Clara Campoamor: la sufragista española*. Madrid: Instituto de la Mujer, 1986.
- Figueruelo Burrieza, Ángela. “Setenta y cinco años de sufragio femenino en España perspectiva constitucional”. *Criterio Jurídico*, 7 (2007): 141-162.
- Franco Rubio, Gloria A. “La contribución de la mujer española a la política contemporánea: de la Restauración a la Guerra Civil (1876-1939)”. En *Mujer y sociedad en España 1700-1975*, coord. Rosa M. Capel Martínez. Madrid: Instituto de la mujer, 1986.
- . “Los orígenes del sufragismo en España”. *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V, Historia Contemporánea*, 16 (2004): 455-482.
- Morcillo Gómez, Aurora. “Feminismo y lucha política durante la II República y la Guerra Civil”. En *El feminismo en España: dos siglos de historia*, ed. Pilar Folguera. Madrid: Editorial Pablo Iglesias, 1988.
- Nash, Mary. “Experiencia y aprendizaje: la formación histórica de los feminismos en España”. *Historia social*, 20 (1994): 151-172.

- . *Mujeres en el mundo: historia, retos y movimientos*. Madril: Alianza Editorial, 2012.
- . “Los Feminismos históricos: revisiones y debates”. En *Feminismos: contribuciones desde la historia*, ed. Ángela Cenarro eta Régine Illion. Zaragoza: Prensa de Universidad de Zaragoza, 2014.
- Nash, Mary eta Tavera, Susanna. *Experiencias desiguales: conflictos sociales y respuestas colectivas (siglo XIX)*. Madril: Editorial Síntesis, 1994.
- Sánchez Blanco, Laura. “Una historia diferente, 80 años después de que las mujeres votasen por primera vez. Mujeres conservadoras, católicas y radicales”. *Aportes*, 82 (2013): 101-123.
- Scanlon, Geraldine M. *La polémica feminista en la España contemporánea (1868-1974)*. Madril: Akal, 1986.